



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Lasterketaren irteera Azpeitiko Enparantzan izango da, eta lehen metroak, Azpeitiako festa guztien erdigunea den Erdi kalean barrena egingo ditugu, eta ondoren azken urteetan ospe handia hartu duen trenaren museoaren barnean sartuko gara, trenbidean barrena metro batzuk eginez.



*Tren museoa*

Eskubira begiratzuz, lehen tontorra edukiko dugu begien bistan, Arroita 612m (Arauntza bezala ezagunagoa). Hemen izango ditugu, eguneko lehen maldak, Arauntza baserriaren albotik igaroaz helduko gara tontorrera, eta atzera begiratu ez gero, Azpeitiko herriaren ikuspegi ezin ederrago bat izango dugu.



*Azpeitia Arauntzatik*



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Ibilbidean aurrera jarraituz, Saiñu mendiaren ondotik Etumetara iritsiko gara eta hemen Errezil eta Aizarna lotzen dituen errepidea gurutzatuz, Komizulotzako ehiza postuetara iritsiko gara, bertan izango dugularik eguneko lehen anoa gunea. Indarrak hartu eta eguneko bigarren tontorraren bila joango gara, Gazume (1001m).



*Gazume*

Hau igarota, segituan begian bistan izango ditugu, Zelatungo bordak, Hernio mendiaren inguruko eta Gipuzkoa osoko mendizale ororentzat leku kuttuna. Nola ahaztu irailako igande guztietan egin ohi diren erromeriak.



*Zelatungo erromeriak*



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Zelatungo bordak igaro eta Herniora (1078m) zuzenduko gara, kilometro bateko igoera da eta berau izango da eguneko punturik garaiena.



*Hernio*

Hernio albo batera utzi eta Bidaniako uso postuetatik barrena, eguneko bigarren anoa gunera iritsiko gara, Iturburu.

Jan eta edan ondoren GR markei jarraituko diegu eta Otsagabia baserriaren parean, Azpeitia eta Tolosa lotzen dituen Urrakiko errepidea gurutzatuz. Errepidea gurutzatu eta berriro ere GR markei jarraituz Santa Agedara iritsiko gara.



*GR markak Santa Ageda bidean*



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Santa Agedan errepidea gurutzatu eta hormigoizko bidean sartuko gara eta berari jarraituz iritsiko gara hirugarren anoa gunera, berau, Murumendi mendiaren magalean kokatuta egongo da, Domingoko dolmenaren ondoan. Eztatia busti, bete beharreko kantinplora, bidoi, eta abarrak bete eta Murumendi gailurrera (868m) zuzenduko gara.



*Murumendi*

Gailurra egin eta Larrarte baserriaren albotik pasa, beti ere GR markak jarraituz, San Gregorio ermitara iritsiko gara eta handik Mandubiara, bertan egongo delarik, eguneko laugarren anoa gunea. Aipatzekoa da, Santa Ageda ingurutik, Mandubiara bidean dauden dolmen, tumulu eta trikuharri kopurua.



*Dolmenak Mandubiara bidean*



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Mandubian, indarrak berreskuratu eta Izazpiko gailurreranzko (973m) bideari ekingo diogu, Kizkitzako ermita ondotik pasata.



*Izazpi*

Izazpi pasa eta beherantz abiatu eta berehala eguneko 5. anoa gunera iritsiko gara, Pagotxeta, eta hemen pixka bat freskatu eta Hiruarrieta (Samiño) (933m) tontorrera zuzenduko gara.



*Hiruarrieta (Samiño)*



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Inguru hauek, Azpeitia eta inguruko herrietako BTT zaleen leku kuttunak dira. Gailurra pasa eta Igarate baserrira jaitsiko gara, hemen 200metro inguru pista batean eginez, Larrume-Txiki baserrirako bidegurutzera iritsi arte (anoa gunea). Hemen izango ditugu, egun osoan, pasatu beharreko asfaltoko metro gutxienetako batzuk. Asfaltoa alde batera laga eta Txalintxo mendirantz zuzenduko gara Munoaundi gainetik pasaz. Hemen Burdin Aroko herri baten aztarnak topatu zituzten eta gaur egun oraindik aztertze lanetan dabilta.



*Munoaundi*

Aztarnategia albo batera laga eta hurrengo gunea garrantzitsua Loiola izango dugu, bertara, atzeko partetik iritsiko gara, aterpetxetik eta Loiolako Jesuiten belardietan barrena (lasterkariak soilik izango dute pasatzeko baimena), Basilika aurrera irteteko.



*Loiola basilika*



## DOMUSA TEKNIK 40 MLK: IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Loiolako basilika aurreko belardietan barrena, bide gorrian sartu eta errepidea gurutzatuz, iritsiko gara Izarraizko Atera (Ikasberri), bertan egongo delarik kokatuta ondorengo anoa gunea. Hau da ibilbidean zeharreko azken anoa gunea (likidoa + solidoa + pasta), beraz, komenigarria izango da ongi jatea.



*Izarraizko Atea*

Izarraizko atean barrena, izenak ongi dion moduan, Izarraitz mendi lerroan sartuko gara, eta gora begiratze hutsarekin, eguneko azken gailurra ikusiko dugu, Xoxote. Lehen metroak, Xagu Xaharraren bidean egingo ditugu eta poliki-poliki goranzko bideari ekin. Bost kilometroko igoera izango dugu eta 805m desnibel positiboa. Igoera, Izarraitzera igotzeko pistaren aldetik egingo dugu, berak dituen lasterbideak aprobetxatuz. Pistara heltzen garenean, anoa gunea bat izango dugu, eztarriak bustitzeko eta ondoren Izarraitz ko harrobira doan bidea hartuz. Lehen aipatu moduan, hemendik eta gailurrera bidean, lasterbide ezberdinak erabiliko ditugu, San Ignazioaren estatuara iritsi arte (889m). Gailurra pasa eta 200 metrora Xoxoteko aterpean izango dugu, azken anoa gunea.



# DOMUSA TEKNIK 40 MLK:

## IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA



*San Inazioaren estatua Xoxoten*

Aterpea atzean laga eta Izarraizko putzuaren ondotik Elurtegian barrena, Azketa iturri ondotik herrirantz abiatuko gara, azken kilometroak burutzera. Azken 6 kilometroak aldapen behera dira, helmugarako 2,5 kilometrora izango dugun maldatxo bat salbu. Magdalenako ermitara iritsitakoan, eskuinera hartu eta herriko kaleetan barrena, Enparantza nagusian izango dugularik helmuga.